

noauea

**Udarregi ikastolak
Kilometroak jaialdiko
erronkan hartuko du parte**

**Aginaga, jai giroan
murgilduta**

**Larunbat honetan,
organo kontzertua
Salbatore parrokian**

**Irantzu lekue:
“Lore baten barrukaldea
irudikatu nahi izan dut”**



G Auto Guria s.l



Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

 **943 363 298**

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL



Islandia
(kruzeroa)



Noruegako Fiordoak
(kruzeroa)



Rusia



Eslovenia & Istria



Zetako bidea
(Uzbekistan)



BIDAIAK TALDEAN



NOAOA
BIDAIAK

IRTEERA 2020
LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13 info@noaoa.eus noaoa.eus

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

UDARA ETA GERO, NEGURA BEGIRA....ZAINDU ZURE AZALA

GOLDEN PEN mikro-zulaketa dermiko eta oszilazio bertikalean oinarritutako teknologia aurreratuarekin, tratamenduen eraginkortasun handiagoa lortzen dugu:



- Aktiboen xurgatzea hobetzen du
- Kolageno eta elastina berrien sorkuntza aktibatzen du
- Orbain, akne eta ildaska markak murrizten ditu.
- Espresio lerroak lausotzen ditu (ezpainak, begiak...)
- Azala tentsatu eta gazteagotzen du
- Orbanen sorkuntza ekiditen du
- Zelulitisa ezabatzen laguntzen du

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Albisteak iruditan

Bizi duinen eta dagozkien eskubideen alde

Urriaren 1eko Pertsona Helduen Nazioarteko Egunak kalera irtearazi zituen Gure Pakea Elkar-teko kideak. Artzabal atarian bildu ziren. Geroz eta jendetsuagoa den kolektibo honi dagozkien eskubideen eta bizi duinen alde mobilizatu ziren. Egun seinala-tu honetan, oso modu berezian gogoan hartu nahi izan zituzten eta elkartasuna helarazi, hilabete amaierara heldu ezinik, pobrezian bizi diren milaka adineko eta pentsiodun.

Bizimodu duina bermatzeko pentsioen sistema publikoa blindatzea eta dagozkien giza eskubideak behingoz errespetatuak izan daitezela galdegiten dute. Egunerokoan, eskubideok betearaziak izan daitezten borrokan dabilzan elkar-teak eskertu nahi izan zituzten, elkar-teon aldarriekin bat egitearekin batera. Astekari honetako "Ika-mika" atalean argitaratu dugun gutuneko edukia plazaratu eta ba-bestu zuten agerraldian.



Bizimodu duina bermatzeko pentsioen sistema publikoa blindatzea eskatu zuten urriaren 1ean, Pertsona Helduen Nazioarteko Egunean.

80 urtekoei omenaldia

Urtero moduan, urriko lehen igandearekin batera, 2019an 80 urte bete dituzten herritarrak omenduko ditu Gure Pakea

elkar-teak. Aginaga Sagardotegian bilduko dira bazkaritarako eta ohikoa den oroigarriak jasoko dituzte omenduek, talde argazkia ateratzerarekin batera.

Laburrean

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Sutegin

"Natura" izeneko argazki erakusketa osatu eta herritarren begi bistan jarriko du Etxeberriak, urriaren 2tik 18ra Sutegiko aretoan. Ordutegi honetan: astelehenetik ostiralera, 16:30-19:00 artean eta larunbat eta igandeetan, 11:30-12:30 artean.

Helduen bertso eskolako saioak hastera doaz

Bota Punttubak ere ikasturte berria abiatu du. Saioak asteazkenetan izango dira Potxoenean, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara bitartean. Argibide gehiagorako, hona idatzi: botapunttubabertsoeskola@gmail.com

Gaztelekua martxan da berriro

12-18 urte arteko gazteentzako egoitza zabalik da astelehen, ostegun eta larunbat arratsaldeetan. Mailaka antolaturiko saioak nahiz adin guztietako erabiltzaileei zuzendurikoak. Informazio gehiago: gaztelekua@usurbil.eus / 943 371 050-688 713 838.

noa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noa.eus // www.noa.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noa.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noa.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Itxaso Orbegozo

Euskaltegira itzul gaitezen

Joan den ostiralean amaitu zen euskaltegietan izena emateko epea. Urtero legez, urriaren hasieratik ekainaren amaierara arte ikasle dantza ibiliko da Euskal Herriko euskaltegietan, bai eta hainbat herrialdetako euskal etxeetan ere. Irakasleoi lanera itzultzeko ordua iritsi zaigu, beraz.

Atzo bertan jaso nuen ikasle ohi baten mezua, aurren ere atzera euskaltegira itzultzekoa zela eta klaseak hasteko gogoz zegoela. Euskaraz ezertxo ere ez zekiela iritsi zen joan zen urrian, eta A0 maila deritzogun maila zehaztu genion. Bederatzi hilabetez aritu ginen gramatikaren oinarriak ezartzen eta ulermen lantzen, modu pasiboan bada ere euskararen mundu txiki-handi honetan murgil zedin. Klasera etortzea ezinezkoa zuenean mezuren bat bidali ohi zidan: "Hoy no voy a poder asistir a clase". Erdara hutsean, jakina. Kontu txikiak ikasi zituen joan zen

urtean; bere burua aurkezten, zenbakiak, barazki eta frutak, ordua, animaliak... Gutxinaka hasi ginen, eta kurtso amaierako azterketa gainditzea lortu zuen. Aste honetan jaso dudana mezuak izugarri harritu nau, euskara hutsean idatzi dit, eta zazpi lerroko mezua da. Euskara nahiko traketsen, baina euskaraz. Eta ulertzeko moduan gainera. Esaldi bakar bat euskaraz egiteko gai ez zenak urte bakar batean lortu du mezu ulergarri bat sortzea. Ez dut azterketa baten emaitzarik behar zenbat ikasi duen jakiteko.

Hizkuntzak maite ditugunok ondo baino hobeto dakigu azterketek zer-nolako presioa sortzen duten ikasleengan. Frantsesa ikasten nabil orain, eta atzo bertan egin nuen B2 mailako azterketa. Ahozkorako nengoen prestatuen, baina gai konplexua tokatu eta gaizkien hori egin nuen. Nire ikasleei ere halakoak gertatzen zaizkie. Joan zen urtean C1eko azterketa egin zuten nire bi

ikaslek. Batek gaintutuko zuela ziurtat jotzen nuen, eta beste hortxe-hortxe ibiliko zela uste nuen. Gauzak nola diren, gaintutzea segurutzat zuenari tipexa lehertu zitzaion eta, horrek eragindako urduritasunak idatzizkoa gaizki egitera bultzatu zuen. Hark ez zuen gaintutu, bai, ordea, justuago zebilen ikasleak. Azterketek horixe dute; inoiz ez da jakiten zer gerta daitekeen. Hala ere, azterketek pertsona baten komunikazio gaitasunak neuritzen dituzten antzinako ideia hori erabat zaharkituta dagoela uste dut. Gezurra dirudi atzo bertan ni ere ikasle paperean azterketa batean egon izana. Hizkuntzak gustoko ditugunok ere, atzerrira joan behar dugunean, gainontzekoei zenbat dakigun hitzez erakutsi baino, zigiludun paper bat erakustea tokatzen zaigu zenbaitetan.

Euskara, edo dena delako hizkuntza, ikasi nahian ari den ikaslea motibatzea da gure lana, ez paper bat lortzen laguntzea. Batzuentzat ezinbes-

tekoa da maila jakin bateko diploma lortzea, lan kontuak direla eta ez direla. Horiei ere hizkuntza bat maitatzen irakatsi behar diegu, ez azterketa bat egiten. Horixe da irakasleoi gehien kostatzen zaiguna, diplomakeria hori atzean uzten erakustea. Onartu behar dut nire ikasle gehienak plazeragatik hasi zirela euskara ikasten, edo familiako kide berriak euskaldunak izatea nahi dutelako. Amatxo eta aitatxo asko dago euskaltegietan, etxeko hizkuntza ohiturak aldatzeko prest. Aitona-amonarik ere bada, biloben ama hizkuntza euskara izanda, haiekin komunikatzeko beharra sortu zaion adineko jendea. Horrelako ikasleak ditut gustoko, hizkuntza ohiturak aldatzeko prest dauden ikasle horiek. Ikasle kamaleoiak dira, inguru eta momentu jakinetara egokitzeko prest; bai eta inguru eta momentu horiek aldatzeko prest dauden ikasleak ere.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | **Itxaso Orbegozo** | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

2020ko jai egun ofizialak finkatu dituzte

2020. urterako tokiko jaiegunen egutegia finkatu du Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariak. Ohi denez, 2020. urtean ere Espainiako eta erlijio ospakizunei lotutako 12

jai egun ofizial izango ditu Gipuzkoak: urtarrilaren 1a eta 6a; martxoaren 19a; apirilaren 9a, 10a eta 13a; maiatzaren 1a; uztailaren 25a; abuztuaren 15a; urriaren 12a; abenduaren 8a eta 25a.

Uztailak 2 eta 31, jai egunak

Jai egun hauei Gipuzkoa osorako lan eguna ez den beste bat batu behar izaten da; orain arte bezala, uztailaren 31, San Ignazio Eguna izango da.

Baita udalerrri bakoitzak erabakitako jai eguna ere. Usurbilgo Udaleko udalbatzak apirilko plenoan erabaki zuenez, 2020ko urte herriko jai eguna uztailaren 2a izango da, festetako egun nagusia.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Iñaki
Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Bizi ohitura osasuntsuetan hezten

Bizi ohitura osasuntsuak sustatzeko Mugiment programa Usurbila dakar Udalak, “Usurbil suspertu” izenarekin. Osakidetzarekin elkarlanean bideratuko duen egitasmoak, pertsona ez aktiboei zuzendua egongo da. Lehenbizi anbulatorioan artatuko du medikuak eta medikuak egoki ikusten badu, gero Kiroldegian bizi-modu aktibo bat izateko bere bizi ohituretara egokituko den aholkularitza jaso ahaliko du. Urtebeteko jarraipena jasotzeko aukera izango du erabiltzaile bakoitzak. Urriaren 16an jarri asmo du programa hau Udalak, azken osoko bilkuran udal gobernu taldetik iragarri zuten.

Formazio saioak

Legealdi berria hasita, hurrengo lau urteoi begirako forma-



Pertsona ez aktiboei zuzendua egongo da Mugiment programa. Argazkia, artxibokoa.

zioa jasotzeko aukera izango dute asteotan udal ordezkariak, azken plenoan udal gobernu taldetik iragarri zuten. Euskara eta genero irizpideen inguruko formazio saioak hain zuzen.

Legealdiko plana

Abiatu berri den lau urteko legealdiko bide-orria diseinatzen da udal gobernu taldea, azken osoko bilkuran EHBilduk berri eman zuenez. Maiatzeko hauteskundeetara

egitasmo eta ekintza anitzez osaturiko herri programarekin aurkeztu zirenez, hura betetzeko “herri mandatua” dute orain. Programa horretako lehentasunak ordenatu, edota helburuak eta lanildoak, nola lan egin, norentzat bideratu... hori guztia zehazteko legealdiko plana diseinatzen da udal gobernu taldea, joan den aste-ko plenoan iragarri zuten.

Aztiker soziologia ikerguneak dinamizatuko du

Datozen lau urteotan elkarlanean aritu beharko dutenez, “legealdi honetako bide orria osatzeko gonbita” luzatu zioten udal gobernu taldetik oposizioari ordezkariak. Haiei eta udal langileei aurkeztuko zaie asteotan legealdiko plana. Aztiker soziologia ikerguneak dinamizatuko du prozesua.

Ika-mika

Adinekoen Nazioarteko Egunaz

Urriaren 1ean, Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatu da. Erabakia Nazio Batuetako Batzar Nagusietan hartu zen 1990eko abenduaren 14an.

Pentsiodunen Mugimenduak betidanik defendatu du adinekoen giza eskubideak errespetatu daitezela eta bizimodu duina bermatu diezaizkela. Tamalez, milaka pentsiodun eta adineko pobrezian bizi dira, edo ezin dira hilaren amaierara iritsi, ezin dute alokairua, argia, gasa ordaindu, ezta botika guztiak ere. Horrexegatik eskatzen dugu Pentsioen Sistema Publikoa blindatzeko, pentsiodunei eta adinekoei bizimodu duina bermatzeko.

Horrez gain, erakundeek ere-

mu guztietan ondoko eskubideak bermatzeko ere eskatzen dugu adineko guztientzat:

-Gure beharretara egokitu-tako etxebizitza bat.

-Berokuntza, argia, gasa... bermatuta egotea, bakoitzak dituen bitarteko ekonomikoaren arabera.

-Medikamentuak doan, gure osasun beharren arabera.

-Era guztietako pobrezia eza-batzea adinekoen artean.

-Hobekuntzak egitea adinekoen zentroetan. Zentroetako langileen ratioak aztertzea eta hobetzea.

-Behar adinako bitartekoak mendekotasunaren behar guztiei erantzun ahal izateko.

-Bitartekoak eta laguntzak isolamenduari eta bakardadea-

ri aurre egiteko.

-Adinekoek jasaten dituzten tratatu txarren eta diskriminazioaren aurka jardutea.

-Bitarteko gehiago gizarte ongizateko arloetarako, erakunde guztietan.

-Parte-hartze aktiboa eta zuzeneko elkarriketa adinekoekin erakunde guztietan.

-Adinekoentzako ingurune lagunkoi egokituak sortzea.

-Berdintasunerako politikak adinekoen artean ere burutzea.

Zahartze aktiboarekiko eskubidea:

-Elikadura osasuntsua eta ariketa fisikoa.

-Kultura eta ezagutza bultzatzea.

-Adinekoek dugun arrail di-

gitalaren aurka jardutea.

Pentsiodunen mugimendutik gure elkartasuna adierazten diegu egoera ahulenean dauden adinekoei. Eta gure giza eskubideak aintzat hartzeko eta azken egunera arteko bizitza duina bermatzeko eskatzen dugu. Eskerrik asko, egunez egun, gure eskubideak eta gure duintasuna defendatzeagatik borrokan diharduten elkarteak. Izan ere, asko dira elkarte horiek defendatzen dituzten udal-erri, probintzia mailako aldarrikapenak, eta lerro hauetatik gure babesa eman nahi diegu eta gureak egin nahi ditugu aldarrikapen horiek.

Gipuzkoako Helduen Elkartearen Plataforma.

Petrolio, energiaren inguruko jardunaldien abiapuntua

Etorkizunera begira kezka iturri dugun energia hizpide izango duten jardunaldiak antolatu ditu herritar talde batek asteotarako. Eremu honetan bizi dugun egoeraren aurrean “planteatzen ari ginen zer egin dezakegun jendearengana iristeko, beste bide bat behintzat badela adierazteko eta bide horretan zerbait egiten hasteko”. Herritar talde hau elkartu eta petrolio, energiari lotutako toki-esperientziak eta Usurbilgo autohornikuntza azterketa hizpide izango duten hiru saio antolatu dituzte Potxoenean. “Jardunaldi hauetan proposamen zehatzak ekarriko dira”, iragarri dute. Tartean, Ispasterrekoarekin (Bizkaia) batera, Zubieta energiaren inguruan egiten ari den lanketa ekarriko dute hitzorduotara.

“Jardunaldion helburua ez da soilik eztabaida piztea”, gaineratzen dutenez, Usurbilen energia eta elikadura subiraizaren arloetan, edota hondakin zein mugikortasunaren eremuetan lan egingo luketen “lan taldeak sortzea baizik, beste eredu bat bultzatzeko”.

Gaizki dagoenaz protestatetik haratago joan behar gara azpimarratzen du herritar talde honek. “Denbora dezentte galdu dugu. Zehaztasunez eta modu errealean eraikitzen hasi behar dugu”, ohartarazten digute. Pil-pilean den klima larrialdiaren harira sarritan entzuten ari garen moduan, berandutu baino lehen. Datorrigunaren aurrean gutxienez, “pixka bat prestatuak harrapa gaitzala. Goazen prestatzen hastera”.

Kolapsoa edo trantsizioa

Jardunaldi sorta hau, “petrolioaren gailurra” gai honi helduta hasiko dute urriaren 4an. “Aldaketa klimatikoa eta petrolioaren gailurra txanpon beraren bi aurpegiak dira. Txanpon



“Petrolioaren gailurra” gaiari helduko diote ostiral honetako hitzaldian.

PETROLIOA, HIZPIDE

“Aldaketa klimatikoa eta petrolioaren gailurra txanpon beraren bi aurpegiak dira. Txanpon hori kapitalismoa litzateke”

hori kapitalismoa litzateke”, antolatzaileen esanetan. Aldaketa klimatikoaren gaia sarritan herritarren eta gure ohiturei lotu arren, “eredu ekonomikoa da arazoa eta helburutzat etengabe haztea duen eredu hori aldatzen ez dugun artean, horrek geroz eta energia fosil gehiago xahutzea dakar”.

Ildo beretik mintzatu zaio NOAUA!ri Antonio Aretxabala Zaragozako Unibertsitateko geologo ikerlaria eta gai honetan aditua. Nafarroako geologoen eskola ofizialeko delegatu eta Nafarroako Unibertsitateko arkitektura eskolako laborategiko zuzendari teknikoa izandakoa da besteak beste. Gai hauei buruzko dibulgazio lanean dihardu.

Bera izango da hain zuzen, energiaren inguruko jardunaldi sorta hau abiaraziko duena ostiralean Potxoenean. Bere esanetan, 2008tik sufritzen ari garen eta amaierarik gabe parratzen segiko dugun krisiaren

aurrekari izan zen 2005eko “petrolioaren gailurrari” buruz ariko da. “Krisialdi honek osagai energetikoa du”, Aretxabalaren esanetan. Lotura estua du indarrean den sistema kapitalistarekin eta petrolioarekin.

Baliabide mugatuak dituen planetan bizi eta baliabide hauetako bat baino gehiago azken 200 urteotan gehiegi ustiatu dugula jakinik, krisi sistemiko honek aurrera begira eskenatoki posible hauetako batera eraman gaitzakeela dio Aretxabalak: zibilizazioaren kolapsorantz, hazkunderik gabeko ekonomia geldikorrera igarotzera, edota “kapitalismoak inoiz ezagutu ez duen” desazkunde ekonomikorantz. “Trantsizioa edo kolapsoa, ziklo aldaketa berri baten atarian gara edo kapitalismo globalizatuaren agonia eta gainbehera bizitzen ari gara?”.

Energia trantsiziorantz

Energiaren ehuneko ehuna berriztagarrien izango den errealliteratu gerturatu nahi badugu, bide hori ezinbestean petrolioaren laguntzaz egin beharko dugula dio. Eta une hau horretarako baliatzea proposatzen du. “Petrolio energia trantsizio hori egiteko baliatu genezake”.

Ostiraleko hitzordura gonbidatzen gaitu, “azken urteotan

gertaturikoa ulertu, gure egungo egoeraz diagnosi argi bat izan eta etorkizunerako egin ahalko dugun eta ezingo duguna proiektatzeko, izango ditugun eskenatoki posibleen berri izateko”.

Energiaren inguruko jardunaldiak

Urriak 4, ostirala

■ 19:00 Hitzaldia Potxoenean: “Petrolioaren gailurra eta bere ondorioak”. Hizlaria: Antonio Aretxabala geologoa, gaian aditua.

Urriak 18, ostirala

■ 19:00 Hitzaldia Potxoenean: “Toki-esperientziak energian: Zubieta eta Ispaster proiektuak. Energia Berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak”.

Azaroak 8, ostirala

■ 18:00 Hitzaldia Potxoenean. “Usurbilgo autohornikuntza azterketa”. Hizlaria: Jesus Calvillo.



Antonio Aretxabala ostiralean ariko da Potxoenean.

Usurbilek Euskaraldian izena eman ondoren, bolondres sarea indartzera

Estreinako edizio arrakastatsuen ondotik, bigarrena, 2020ko Euskaraldia prestatzen hasia da, ekimena Usurbilen sustatzen ari den herritarren batzordea. Baina orain bai, ofizialki hurrengo urteko ediziora begira gaudela esan dezakegu. Aipatu batzordetik berri eman dutenez, Usurbilek 2020ko Euskaraldirako izena eman du jada!

Horrekin batera, lau lan talde osatu dituzte herritar batzorde honen baitan. Bakoitzak modu autonomoan funtzionatuko du, lan-dinamika eta bilera maiztasun propioarekin, nahiz gero noski, herri mailako batzordean bilduko diren. Batzorde orokorra “bi hilabete behin biltzea aurreikusitako da. Batzorde hori baliatuko dute lantaldeek elkarren berri izateko, eta bilera horietan hartuko dira guztioi eragingo dizkiguten erabakiak”. Bai batzordea bera eta lan taldeak irekiak izango dira. “Euskaraldia girotzeko, bolondresen sarea indartu nahi dugu. Gustura hartuko zaitugu gure artean”

Lan taldeetako batek entitateekin lan egingo du. Gogoan izan, herritarrez gain, bigarren edizioan entitateak ere parte hartzera gonbidatu nahi dira. “Herriko taldeek, eragileek, komertzioek, enpresek eta abarrek modu zuzenean parte hartu ahal izango dute Euskaraldian, Ariguneak sortuz. Ariguneak entitateek babestutako euskaraz aritzeko espazioak dira, eta horien sorrerak taldeetako hizkuntza-ohiturak aldatzen lagunduko du”.

Horretarako, lan talde hau, “herriko entitateen mapa egin, lehentasunak jarri, entitateei Euskaraldia aurkeztu eta ekimena aurrera eramateko laguntza” eskaintzeaz ardura-



Potxoenean batu ohi dira. Hurrengo bilera azaroaren 12an egingo dute. Argazkia: Euskaraldia Usurbil.

EUSKARALDIA

“Euskaraldia girotzeko, bolondresen sarea indartu nahi dugu. Gustura hartuko zaitugu gure artean”

tuko da, NOAUA!ri berri eman diotenez.

Euskaraldia herriratzen ari-tuko da beste lan talde bat. Ekintzak antolatzen edota informazio mahaia kalean jartzen. Asteotan esaterako, abenduaren 3ko Euskararen Egunerako ekintzak prestatzeaz arduratuko da. Hirugarren lan talde batek komunikazio lana hartuko du bere gain; Euskaraldiko webgunea (usurbil.euskaraldia.eus) eta sare sozialak kudeatu, albisteak sortu, ekintzez eta Euskaraldiaz informatu...

Laugarren eta azken taldeak koordinazio lanak bideratuko ditu; kontu ekonomikoak, barne harremanen kudeaketa...

Datozen deialdiak

■ Asteotan lan talde bakoitzak bere aldetik biltzen eta lanean segiko du.

■ Batzorde orokorraren hurrengo bilera irekia, azaroaren 12an 17:00etan Potxoenean.

■ Azaroan aurkeztuko da Euskaraldiaren lehen edizioak

Usurbilen izandako eraginari buruz Udalaren enkarguz Soziolinguistika Klusterrak eginitako azterketaren emaitzak.

■ Lan taldeetan izena emateko helbide honetako galdetegia bete: <https://forms.gle/urLU-7xxi26Jdc6RX7>

■ Argibide gehiagorako: usurbil@euskaraldia.eus

Ikastolako gurasoentzako ikastaroa

Urriaren 1ean hasi zuen ikasturte berria Etumeta AEK euskaltegiak. Aurreikusia duten eskaintzaren baitan, ikastaro bat 2-16 urte arteko Udarregi Ikastolako ikasleen gurasoentzat izango da. 100 ordukoa, urritik maiatzera. Asteon bi orduko bi saio, 14:30-16:30 artean euskaltegian. Urriaren 4ra arte matrikulatu ahal da. Prezioa, 100 euro, baina klaseen %80ko asistentzia izanez gero, matrikulazioa doan izango du Usurbilgo Udalaren diru-laguntzari esker. Izen emate orria ikastolako idazkaritzan jaso ahal da, bete ostean bertan edo euskaltegian utzi. Mailaketa-froga, urriaren 10ean, 14:30-16:30 artean Etumeta AEK euskaltegian.

■ Informazio gehiago: 607 609 379 usurbil@aek.eus

Urriaren 12an, 1979ko kinto bazkaria
Garai berekoa izan eta anizmatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

Urriaren 19an, 1955eko kinto eguna

Urriaren 19rako egunpasa antolatu dute. Izen ematea irailaren amaieran bukatzen zen berez. Maribi (675 006445), Patxi (615760458). Email: 1955usurbil@gmail.com

1959an jaiotakoek bazkaria Antxetan

Urriaren 19an Antxetan. Izena eman urriaren 17a baino lehen. Horretarako 50 euroko ordainketa egin, antolakuntzak ireki duen kontu zenbaki honetan: 2095 5069 0091 1930 2908 (Kutxabank). Informazio gehiagorako: 659 13 90 73 (Eli).

Urriaren 26an, 1952ko kinto bazkaria

Saizarren bilduko dira bazkaritarako. Izen emateko epea urriaren 19ra arte dago irekita: 620516715 (Javier).

Urriaren 26an, 1946an jaiotakoek bazkaria

Urriaren 26an bilduko dira Antxetan. Bertaratu nahi duenak aurrez eman dezala izena, 943 36 34 48 (Laurak). Epea: urriak 20.

1969an jaiotakoak, urriaren 26an Atxegan

Aurten 50 urte beteko dituzten bilkurarako izen ematea aurrez bideratu behar da, urriaren 18a baino lehen 50 euroko ordainketa eginda: 3008 0259 17 40382 18121 (Rural Kutxa).

Gure Esku Dago Usurbil: “Erreferenduma ez da delitua”


Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak elkartasuna adierazi nahi die Kataluniako auziperatuei eta erabakitze eskubidearen defentsan mobilizazioak iragarri ditu.

“Igaro berri da urriaren 1eko erreferendumaren bigarren urteurrena eta laster ezagutuko dugu buruzagi independentisten inguruko Auzitegi Gorenen epaia”. Katalanei elkartasuna adierazteaz gain, “Gure Esku Usurbilek hiru mezu argi bidali nahi dizkio euskal gizarteari”.

Batetik, epaiak ez die eragingo soilik preso politiko katalanei. Gure Esku Dagoren esanetan, “krisi demokratiko larria piztu dezake, eta oinarrizko eskubideak kriminalizatzearaz gain, burujabetza helburu edota asmoak mugatu”.

Balitzko zigor epaiaren aurrean, Gure Esku Dagokoak “prest gaude euskal gizartearen erantzun zabala artikulatzeko”.

Azkenik, ezinbestekotzat



Auzitegi Gorenen epaiaren bezperan kartel hauek plazaratu ditu Gure Eskuk.

GURE ESKU DAGO USURBIL

Kataluniako buruzagi independentisten inguruko epaiaren harira, mobilizazioak iragarri ditu

jotzen du “euskal herritarren ordezkariak ahaleginak area-

gotzea oinarrizko eskubideak, askatasunak eta burujabetza nahia elkarrekin defendatzeko. Defenda dezagun gure erabakitze eskubidea”.

Epaia harira, Gure Esku Usurbilek adi egoteko deia egin nahi die herritarrei. Sententziaren baitan, mobilizazioak antolatuko direlako.

Azaroaren 10eko hauteskundeak: posta bidez bozkatzeko eskatzeko epea zabalik

Espainiako Gorteak berri-tzeko azaroaren 10eko hauteskundeak begira, posta bidezko bozka eskatzeko epea zabalik da jada. Correoseko bulegoan bideratu ahalko duzue eskaera urriaren 31ra arte. Eskaera bideratzeko zuen burua identifikatu beharko duzue. Posta bidez bozkatu nahi duen herritarrek berak joan behar du eskaera egitera, gaixo ez bada behintzat. Kasu honetan, eta beharrezko baimendutako ziurtagiriarekin bere izenean beste pertsona batek egin ahalko du eskaera.

Posta bidez bozkatzeko epeak:

- Eskaerak aurkezteko epea: irailak 24-urriak 31.
- Posta bidezko bozka jasotzeko epea: urriak 28-azaroak 3.
- Posta bidez bozkatzeko epea: azaroaren 6ra arte.

Parte hartze prozesu bat abiaraziko dute Txokoalden

Helburua argia da: auzoaren beharrak mahai ganean jarri eta har daitezkeen neurriez jardun. “Behar horiek asetzeko gakoa izan daiteke Akerra gaztetxea dagoen udal eraikina”. Hura berregokitzea dute xede.

Irailaren 25ean batzar batean batu ziren auzotarrak eta udal ordezkariak. Udal iturrien arabera, “auzoaren bizitza hobetzeko gogoia eta borondatea” erakutsi zuten denek.

Txokoaldetarren kezka entzun eta horiei irtenbidea eman asmoz, partehartze prozesu bat abiaraziko da. Udalak badu eraikin bat Txokoalden, Akerra



Irailaren 25ean batzarra egin zuten Txokoalden. Bertan eman zen parte hartze prozesuaren berri.

gaztetxea dagoena, eta espazio hori proposatu zuten udal ordezkariak auzotar guztiek erabili eta auzoko bizitza hobetzeko.

Udalak aparejadore bat kontratatatu zuen udan, eraikinaren azterketa teknikoa egiteko: ezertan hasi aurretik, huraxen eman beharreko lehenengo

pausoa. Emaizak esku artean joan ziren udal ordezkariak batzarrera, eta espero baino hobeak izan ziren. “Eraikina udalak eta auzotarrek bat egin da berregokitzea proposatu zuen alkateak, eta han bildutako auzotarrek bat egin zuten harekin”, udaletik aditxera eman dutenez.

Urriaren 9an, batzarra Akerra gaztetxean

Hurrengo hilabeteetan zehar egingo dute parte hartze prozesua, tokiko garapenerako estrategiak lantzen dituen Hiritik At kooperatibak dinamizatuta. Lehen batzarra, urriaren 9an arratsaldeko 19.30ean, gaztetxean.

Udarregi Ikastola, Kilometroak jaialdiko Erronkan

Urriarekin batera, Gipuzkoako ikastolen aldeko Kilometroak datorkigu. Aurtengoa Zarautzen ospatuko da hilaren 6an, “Ni, hi, hura, ikastola munda!” aldarripean, Salbatore Mitxelena ikastolaren alde. 42 urteotan ospatu den jaialdia egun ezagutzen dugun ereduari ospatuko den azken aldia izango da igande honetako. Antolakuntzak ohartarazi duenez, Villabona-Amasa eta Zizurkilgo Zubimusu ikastolak prestatuko duen 2020ko edizioa, “urte osora zabalduko den elkarlan-eredu bat izango da, eta bere egun handia izango du urriko lehen igandean, baina ez da zirkuiturik izango. Erronka eta bestelako proposamen berritzaileak eskainiko dira”.

Aurtengora itzulita, Zarautz ekialdea, Ikastola, Mollarri eta malekoia lotuko dituen 3 gune izango ditu urriaren 6ko jaiak. Eta egunean zehar, hainbat ekitaldi iragarri dituzte: Skasti, Mac Onak, Ene Bada, Ai Ama



Gazte hauek ordezkatzeko dute Udarregi ikastola. Argazkia: erronka.eus

ERRONKA

Ikasleen abilezia, indarra eta abiadura neurtuko dira batetik. Eta buruargitasuna, jakintza orokorra eta euskaltzaletasuna bestetik

eta Aneguriaren kontzertuak, batukada feminista, herri ki-

rolak, abesbatza, dantza saio eta ikastaroak, txarangak, jan edana... Eta Gipuzkoako ikastoletako DBH-ko gazteak proba ezberdinen bueltan parte hartzen jarriko dituen Erronka ezaguna. Aurtengo ediziorako ere Udarregi Ikastolak taldea osatu du, kideekin: Malen Olaizola, Urtzi Furundarena, Amaia Gainza, Jon Arruti, Garazi Mutilloa, Harri Agirresarobe,

Anne Navarro, Oier Eleta, Enara Arrospide, Oier Ikatzeta, Izaro Arruti, Ioritz Karrera eta Xuban Gurrutxaga. Felix Olaetxea izango da ikastolako kapitaina.

“Proba zirrargarriak”

Urtero moduan, “proba bizi eta zirrargarriak izango dira, taldeka gainditu beharrekoak. Batetik, ikasleen abilezia, indarra eta abiadura neurtuko dira. Bestetik, buruargitasuna, jakintza orokorra eta euskaltzaletasuna ere frogan jarriko dituzte proba hauek”. Erronka Kilometroak jaialdiko gune guztietara hedatuko dute.

Informazio gehiago: erronka.eus / kilometroak.eus

Beka deialdia

2019-20 ikasturterako Eusko Jaurlaritzako eta ikastolako beka eskatzeko epea zabalik izango du Udarregi, urriaren 29ra arte. Sarean hezkuntza.net ataritik bidera daiteke eskaera, edo Ikastolako idazkaritzan aurretik hitzordua eskatuta. Informazio gehiago: udarregi.eus



Erraustegiaren inguruko ikerketa finantzatzeko laguntza bilketa hasi dute Zubietan

Erraustegiak herritarrongan izango duen eragina aztertzeko ikerlan independentea abian du Zubietan Lantzenek. Bidelagun ditu Euskal Herriko enpresa bat eta Holandako Toxicowatch Fundazio prestigioitsua. Lehen laginak hartu zituzten duela hilabete erraustegitik hurbilen dauden herrietan. Erraustegia piztuko balute, urtero hartuko dituzte laginak. Ikerlan hau finantzatzeko bide ezberdinak zabaldu dira.

Errausketaren Aurkako Mugimenduak “crowdfunding” kanpaina abiarazi zuen joan den astean. Zubietan Lantzenek ere kontu zenbakia jarri du diru ekarpenak egin nahi dituen ororen eskura. Eta mahaia ere jartzen hasia da Zubietako plazan. “Dagoeneko 4.785 euro bildu dira, baina helburu bezala 13.000 euro jarri dira”, ohartarazi du Zubietan Lantzenek.

“Jasoko dugun diru guztia bi enpresa hauei beren lana ordaintzeko baliatuko dugu. Nazioartetik zientzialariak Euskal Herrira ekarri, laginak hartzeko egonaldia ordaindu eta batez ere, gerora beren herrialdean analitika egiteak kostu hau du”, berri eman du Errausketaren Aurkako Mugimenduak. 13.000 euro baino gehiago jasoko balituzte, “mugimendu gisa buruan ditugun ekimen batzuk prestatu eta finantzatzera bideratuko genituzke. Beti ere, erraustegia gelditzea helburu izango duten ekimenak”.

Pilatzen doan kutsadura

Jasotako laguntzaren truke, “sari nagusia gizarteari egingo diogu denon artean, kutsadurari buruzko datuak modu gar-



Jasotako laguntzaren truke, “sari nagusia gizarteari egingo diogu denon artean, kutsadurari buruzko datuak modu gardenean jakinaraziko baititugu”.

DIRU BILKETA

Dagoeneko 4.785 euro bildu dira, “baina helburu bezala 13.000 euro jarri dira”, ohartarazi du Zubietan Lantzenek

denean jakinaraziko baititugu, eta erraustegia pizten badute, urtero-urtero egingo baititugu kutsadura ikerketak. Erraustegiek askatzen dituzten kutsadurak pilatzaileak dira, hau da, izaki bizidunek jaten badituzte

pilatzen joaten direla eta ezin direla kanporatu, horrenbestez, urtez urte kutsadura igotzen nola joango den ikusiko dugu”.

Banderolak opari

Horrekin batera, etxeko leiho nahiz balkoietan banderolak opari jasoko dira, “baita, ikerketa independentearen babesle gisa agertzeko aukera eman ere”. Ariketa hau, “autodefentsa neurri” gisa definitzen du Errausketaren Aurkako Mugimenduak. “Lagundu crowd-

founding kanpaina babesten!”, deitu dute.

Diruz laguntzeko bideak

■ Laguntza biltzeko Zubietan Lantzenen mahaia urriaren 5ean Zubietako plazan, 17:30-19:30 artean.

■ Zubietan Lantzenen kontu zenbakia: ES45 2095 5069 0610 6413 2086 (Kutxabank).

■ Errausketaren Aurkako Mugimenduaren crowdfunding kanpaina, esteka honetan: vkm.is/erraustegiarenkontrola

Zubietako hitzarmenari buruzko herri bilera

Zubietako Herri Batzarrak, Usurbilgo Udalak eta Donostiako Udalak martxoan adostu zuten hitzarmenaren nondik norakoen berri emateko herri bilera deitu dute hiru erakundeek urriaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan Zubietako Kaxkapen.

Hitzarmen honi esker, urriaren 21etik aurrera Zubietan osoko hondakinak Usurbilgo Udalak bilduko dituela ohartarazi du Udalak berak. Ondorioz, “Irigoin kaleko eta Errota bideko edukiontzia kendu eta, horien orde, Ertate eta Barazarren eraiki berri dituzten Garbitxikiak erabili

ahal izango dira”, iragarri du Udalak. Guneok erabiltzeko giltza beharko da eta giltza eskuratzeko aukera desberdinen berri eman du Udalak:

■ Urriaren 18an, 16:00-19:00 artean Kaxkapen.

■ Urriaren 19an, 11:00-13:00 artean Kaxkapen.

■ Usurbilgo Udaleko Atez Ateko bulegoan, ohiko ordutegian.

Donostiako lurretan bizi diren zubietarrei, Udalak berri eman duenez, “hondakinak atez ate biltzerik nahi ote duten edo ez galdetuko diete”. Hitzarmenak ere aldaketa gehiago dakartza Zubietako

zerbitzuetara. “Bi aldaketa nagusiak ur zerbitzuari eta hondakin biltzari lotutakoak dira. Ur zerbitzuari dagokionez, Zubietako kaxkoa Añarbeko urarekin hornituko dute, eta Learritza pasealekuko eraikinak, Usurbilgo urarekin”, ohartarazi du Udalak. Tasei buruzko beste ohar bat. “Aurrerantzean, zubietarrek dagozkien tasak –ura, hondakinak eta bestelakoak– beren udalerrian ordainduko dituzte, nahiz eta zerbitzua beste udalerriak eman”. Aldaketa guztiok urriaren 21etik aurrera izango dira indarrean Zubietan.

Hondakinak erraustea, klima aldaketan sakontzearen parekoa

Hondakinak erraustea berdin aldaketa klimatikoa. Lotsagarria. Aldarri honen bueltan bat egin eta parte hartu zuten errausketaren aurkako eragile anitzek, Fridays For Future mugimenduak, irailaren 27ko mundu mailako greba egunez Donostian deitutako manifestazioan. Errausketaren Aurkako Mugimenduak, GuraSOsek, Osasuna eta Errausteta Ikerketa Taldeak, LAB, ELA, CCOO, Steilas eta EHNE sindikatuak, Eguzkik, Greenpeace-k, Ernaik... bat egin zuten mobilizazioarekin. “Gobernuei benetako ekintza konprometitua exijitzeko” irten ziren kalera.

Pankartaz gain, errausketaren aurkako banderolekin parte hartu zuten hainbat lagunek manifestazioan. Klimaren eta ama lurraren aldeko manifestazioa, Zubietako eta



Errausketaren aurkako banderolekin parte hartu zuten hainbat lagunek irailaren 27an egin zen manifestazioan.

DATUA

“Euskadiko 8 enpresa kutsatzaileenetatik 4 erraustegiak dira”

gainerako erraustegien aurkakoa bilakatu zen. “Aldaketa

klimatikoaren kontrako lehen garaipena etxean irabazi behar dugu. Ez dugu utziko erraustegia urrian abian jar dezaten”, zioten ohar bidez aipatu eragileok. Datozen mobilizazioetan parte hartzeko deia zabaldu zuten.

Erraustegien eraginaz ohar-

tarazten digute. “Euskadiko 8 enpresa kutsatzaileenetatik 4 erraustegiak dira”. Horregatik diotenez, “esan liteke Gipuzkoan aldaketa klimatikoak izen eta abizenak dituela. Gipuzkoan aldaketa klimatikoa Foru Aldundia eta Urbaser deitzen dira”.

Erraustegia ez pizteko eskaera

Klimaren aldeko mobilizazioak milaka lagun bildu zituen Donostian. Tartean, Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatuak parte hartu zuen. Errausketaren aurkako oihu eta aldarri artean hartu zuten manifestariak Aldundiko ordezkari politikoa. Hondakinak erraustea aldaketa klimatikoan sakontzea dela gogorarazi zioten. Asensio bera kide duen Foru Aldundiak bultzatu eta eraikitako Zubietako erraustegia ez piztea eskatu zioten. Manifestazioa Bulebarrean zela mobilizaziotik irtetea erabaki zuen “B planetarik ez dagoelako” aldarridun kamiseta zeraman Asensiok.

Fridays For Future mugimenduaren



Hondakinak erraustea aldaketa klimatikoan sakontzea dela gogorarazi zioten Jose Ignacio Asensiori.

menduaren deialdia baino ordu batzuk lehenago eta klimaren aldeko mundu mailako

greba egunean Irutxuloko Hitzari eskainitako elkarrizketan Asensiok defendatzen zuenez,

“erraustegia bateragarria da klima aldaketaren aurkako borrokararekin”.

Irantzu Lekue: “Zumetaren txorien koloreak eta formak hartu ditut abiapuntu”

NOAUA! Nola definituko zenuke Kale Nagusia eta Askatasuna plazaren arteko pasabidean egin duzun margolana?

Irantzu Lekue. Interbentzio artistiko bat da. Ez da mural bat, horma asko baizik. Hormak, zutabeak, pasabidea... Eta nondik begiratzen duzun, ikusten dena ezberdina da.

Nola izan da prozedura?

Udala nirekin harremanetan jarri zenean, argazkiak bidali zizkidaten, neurriak... Dena den, diseinu lanari ekin baino lehen hona etortzea erabaki nuen. Espazioa bertatik bertara eza-gutu nahi nuen. Eta behin hemen, ezberdin ikusi nuen dena. Oso iluna zen tokia. Zumetaren txoriak ikusi nituen pasabidean zintzilik eta horrek ere inpresioa egin zidan.

Eta diseinuari dagokionez, libre aritzeko aukera izan al duzu?

Udaletxetik lan koloretsu bat nahi zutela adierazi zidaten. Koloretsua eta abstraktua. Katalunian horma-irudi bat egitetik nentorren eta gauza figuratiboak egiteaz apur bat nekatuta nengoen. Udalaren ideia gustura hartu nuen, zerbait abstraktua egiteko proposamena erakargarria egiten zitzaidalako. Behin hori jakinda,



“Udaletxetik lan koloretsu bat nahi zutela adierazi zidaten. Koloretsua eta abstraktua”. Pasabidean bertan lanean zela atenditu gintuen.

IRANTZU LEKUE

“Hiru diseinu ezberdin aurkeztu nituen udaletxean. Bizilagunek aukeratutakoa da margotu dudana”

hiru diseinu ezberdin aurkeztu nituen udaletxean. Bizilagunekin harremanetan jarri eta hirur diseinuak erakutsi zizkieten bizilagunei. Eurek aukeratutakoa da landu dudana.

Beraz, bizilagunen aukera da burutu duzuna.

Bai. Baten batek esan dit, orain

gehiago gustatzen zaiola. Diseinuan agertzen zena baino politago geratu dela. Askotan gertatzen da. Argazki-muntaia batean modu batean ikusten da baina behin margolana egiten hasi eta ezberdina izaten da emaitza. Gainera, kasu honetan, nondik ikusten duzun, aldatu egiten da irudia.

Etxe hauek Zumetaren ukitua dute. Margolari handi baten ondoan margotzea ez da erraza izango. Presio modukoa sentitu al duzu?

Pitin bat, bai. Usoa Zumetarekin lan egin nuen uda aurretik eta bere tailerrean egonda nago. Hala ere, nire lana ezin

da Jose Luis Zumetaren lana-rekin parekatu. Gainera, nire interbentzio artistikoa beste material batzuekin eginga dago. Dena den, Zumetak erabilitako koloreak eta formak hartu ditut abiapuntu.

Beraz, badu jarraikortasun bat?

Bai, ideia hori da. Margolana abstraktua da. Interpretazioa beraz, libre da. Bakoitzak modu ezberdinean ulertuko du. Motiboari dagokionez, nik lore baten barrukaldea irudikatu nahi izan dut eta hor dago Zumetaren txoriekiko lotura.

Natura irudikatu nahi izan duzu.

Aproposa iruditzen zait gaia. Etxe azpitik doan pasabide bat da. Gu lurretik sortzen gara eta eraikinak ere lurretik sortzen dira. Margolanaren bitartez, lurrean bizi diren loreak irudikatu nahi izan ditut. Xomorro batzuk ere sartu nahi ditut, modu kamuflatuan bada ere.

Ez da horma-irudi bat. Eta perspektiba ezberdinak ditu. Margolana orekatzeko lanak izan al dituzu?

Prozesua mentalki neketsua izan da. Ikuspegi guztiak hartu behar izan ditut kontuan, kolore denak ondo egokituzitezen.

“Interpretazioak oso anitzak dira”

NOAUA! Nolakoa izan da bizilagunekiko hartuemana?

Irantzu Lekue. Oso anitza. Lehen hormak margotzen hasi nintzenean askok oso itxura ona hartu zioten interbentzioari. Beste batzuk berriz, zuriz margotuta nahiago zutela adierazi zidaten. Tira, kalean interbentzio bat egi-

ten duzun aldiro, era askotako iritziak entzun ohi dira.

Dagoeneko ohituta egongo zara, ezta?

Bai. Interpretazioak ere oso ezberdinak eta oso anitzak izan dira. Batzuei itsasoa etorri zaie burura, beste batzuei zerua, beste batzuei abiadura... Baina

oso giro ona egon da. Eta bizilagunak ere oso pozik daudela uste dut.

Usurbilgo Udalaren moduko enkarguak ohikoak al dira?

Normalean partehartzailerak izaten dira enkarguak. Jendeak diseinuan hartzen du parte eta ondoren arike-

ta modukoak egiten ditugu, konposizio lanak adostu edo koloreen gama erabakitzeke. Margotze-lanean aritzeko aukera ere izaten da.

Usurbilgo enkargua akaso interesgarriagoa da niretzat, nik landutako ideia bat garatu ahal izan dudalako. Artista bezala aberasgarriagoa zait.

“Artearen bitartez mugimendu bat sorrarazi nahi nuke, edo saiatu behintzat”

NOAUA! Duela urte batzuk, polemika baten erdian ikusi zenuen zure burua. Margolan bat egin zenuen Gasteizko eraikin huts batean eta jabeak (Kutxabanke, zehatzago esanda) zure kontra egin zuen.

Irantzu Leike. Abandonatuta zegoen orduan. Dirutza bat gastatu zuten hura konpon-tzen. Kultur eraikin izateko berritu bazuten ere, itxita segitzen zuen. *Rangoli* edo *mandala* moduko bat egin nuen eraikinaren aurrealdean. Pigmentu organikoak ziren eta berehala joan zen. Kritika moduan egin nuen.

Nola bizi izan zenuen garai hura?

Urduritasunarekin, baina uste dut ongi atera zela azkenean. Margolana efimeroa zen, handik gutxira ezabatu zen eta ez nuen kalterik eragin. Atzera egin behar izan zuten eta sakaketa kendu egin zuten. Dena den, oihartzuna izan zuen eta, oker ez banago, laster erabile-ra emango zaio eraikinari. Arte grafikoaren institutua jarri behar omen dute bertan.

Artibismoa

Arteak ez du zertan kontenplati-boa edo dekorati-boa izan. Alderantziz. Deseroso ere izan beharko luke, ezta?

Bai, artibismo bezala definitzen dut. Artearen bitartez mugimendu bat sorraraztea, edo sorrarazten saiatzea gutxi-
enik.

Lan errebindikatiboak
Duela urte batzuk #6000zpt instalazioa egin zenuen Gasteizen eta horrek ere zeresana eman zuen. Garai hartan Maroto zen alkate.

Denbora luze batez atzerrian izan nintzen eta bueltan lan



“Ikuspegi guztiak hartu behar izan ditut kontuan, kolore denak ondo egokitu zitezen”, Irantzu Lekuek aitortu digunez.

IRANTZU LEKUE

Javier Maroto alkate zen garaian #6000zpt instalazioa egin zuen Gasteizen. “Lan kolektiboa izan zen eta jendearen kontzientzian eragin zuela esango nuke”

errebindikatiboak egiten hasi nintzen. Une horretan Maroto zen Gasteizko alkate. Bere politika arrazista zen. Gora Gasteiz plataformarekin batera, zapata pilo bat batu genituen. Zapata denekin instalazio bat egin genuen Plaza Berrian eta Andra Mari Zuriaren plazan. Forma organikoak osatu genituen eta amaieran gezi bat irudikatu genuen, Udalari seinaltatzen.

Oso ondo atera zen, lan kolektiboa izan zen eta jendearen kontzientzian eragin zuela esango nuke.

Margotzeaz gain, pasabidea argiztatu eta lurreko zoladura berritu da

Beterri Buruntza eskualdeak sustatutako ‘Guztion Eskualdea’ programaren bidez berritu dute Kale Nagusiko pasabidea. Udalak aditzera eman duenez, margolana-
rekin batera “zorua berritu da eta argiztatze berria jarri

da sabaian”. Egungo zolaren gainean metakrilatozko zoladura iragazgaitz bat ipini da. “Honek mantentze lanak egitea erraztuko die udal langileei”. Bestetik, “argiztatze berriak gauez bertatik erosoago pasatzea ahalbidetuko du”.



Argiztapen berria du pasabideak. Lehen oso iluna zen. Argazkia: Udala.

Sexu erasoen aurkako protokoloa dute Aginagan

Jai Batzordeak NOAUA!ri helarazi dio protokoloaren edukia. Argi diote antolatzaileek. "Aginagako Jai Batzordeak ez du inolako indarkeria egoera edota jarrera sexistarik onartuko! Hori helburu, inguruan jazotako eraso oro salatzeke deia egiten dugu".

Iazko jaietarako landutako protokoloan oinarritu dute aurtengoa. Berrikuntzak txertatu dituzte ordea. Usurbilgo jaietan egin zen bezala, "kontagailu bat izango dugu Eliza zaharrean erasoak zenbatzeko". Erasoak ez isiltzeko deia luzatu dute Aginagako Jai Batzordetik. "Txosnetako arduradunengana edota barraz kanpoko besoko moredu-nengana jo zalantzarik egin



Iazko jaietarako landutako protokoloan oinarritu dute aurtengoa.

gabe, ez isildu! Ez dezagun erantzunik gabeko, erasorik onartu! Jai parekide eta osasuntsuen alde, gora borroka feminista!".

Protokoloaren ardatzak

Erasoren bat ikusiz gero, erasotua-rengana jo eta laguntza behar duen galdetu. Hala bada besoko morea dutenen-

gana jo edo txosnara gertatu. Eraso baten berri ematen bada:

1-Salaketa jasotzen duenak egiten ari dena utzi eta erasotuari kasu egin.

2-Arretaz entzun (azalpenak, beharrak...) eta ez jarri zalantzan egoera.

3-Leku fisiko seguru bat bermatu, entzun, lasaitu...

4-Erasoa identifikatu eta zehaztu.

5-Erantzuna eman: erasotzailearekin hitz egin eta argi azaldu ez dela halako jarrerarik onartuko: gunetik kanporatu! Erasoreen berri eman inguruan (ahoz aho, mikrozo...). Morborik ez, erasotua-rekiko errespetuz!

■ Salaketak bideratzeko hau da telefono zenbakia:

629 61 56 09.

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City * Potxoenea
- * Sutegi liburutegia
- * Zubietako Alamandegi taberna * Aginagako Arrate egoitzan

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik!

tren eta autobus

ordutegia 19/20

noaua

Jaietan murgiltzeko gogoz dira aginagarrrak

Urriak 3, osteguna:

San Praixku bezpera

■ 19:00 XVIII. Gizonezkoen ligaxkako pilota finala eta emakume pilotarien erakustaldia.

Urriak 4, ostirala:

San Praixku Eguna

■ 11:00 Meza nagusia.

■ 12:00 Jubilatuen hamaiketako Aginaga sagardotegian, bertsolariek alaitua.

■ 18:00 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin; txanpaina gure kontu!

■ 18:30 Aginagako herritarren arteko herri kirolak.

■ 19:30 Sardina eta sagardo dastaketa Ane Azkonobieta eta Manex Torrealdei trikitilariak alaitua.

■ Bitartean, XXXVII. toka txapelketa herrikoia eta buruhandi bizkor-bizkorrak!

Urriak 5, larunbata:

Oilasko Biltzaileen

Eguna

■ 5:30 Oilasko biltzaileen gosaria.

■ 6:00 Indarrak hartu ondoren, oilasko biltzaileen irteera Ataralde Elkartetik.

■ 11:00 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.

■ 18:00 Gazte eta helduentzako karaokea!

■ 19:30 Herri poteoa.

■ 21:00 Herri afari bikaina. Sarrerak agortu ez badira, egunean bertan 30 eurotan salgai.

■ 23:30 Erromeria frontoian: Oharkabe.

■ 02:30 Euskal rumba Eliza Zaharrean: Kilimak.

■ Ondoren: DJ Jotatxo.

Urriak 6, igandea:

Gora Herria Eguna

■ 9:00 Tiro platoa.

■ 16:00 XXXVIII. Mus txapelketa Eliza Zaharrean (izen ematea, 15:30-16:00 artean).



Umeen Eguna urriaren 11n izango da baina haurrentzako ekitaldiak egunero izango dira.

OSTEGUN HONETAN

XVIII. Gizonezkoen ligaxkako pilota finala jokatu da eta horretaz gain emakume pilotarien erakustaldia egingo da

■ 16:00 Partxis lehiaketa haurrentzat ludotekan.

■ 18:30 Globo aerostatikoan igoerak egiteko aukera izango da Ataralde Elkartetik ondoko zelaian. Aaala...aa...

■ 19:00 Piper frijitu eta sagardo banaketa herriko plazan.

Urriak 11, ostirala:

Umeen Eguna

■ 10:00 Umeen jokoen hasiera.

■ 13:00 Umeen bazkari goxoxoa karpan, mmm...

■ 16:00 Puzgarriak.

■ 18:00 Txokolate banaketa eta buruhandi bizkor-bizkorrak!

■ 19:00 Herriko jubilatuen eskutik opari jaurtiketa haurrei, Arrartetik plazara, iepa iepa!

■ 19:30 Patata tortila txapelketa.

■ 20:00 Zezen suzkoa plazan zehar; egin ihes txikito, erreko hau!

■ Ondoren, herri poteoa.

■ 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian. Sarrerak 25 eurotan urriaren 6ra arte salgai Usurbilgo Aitzagan eta Arraten.

■ 23:00 Txosna irekiera.

■ 23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Rukula eta Andoni Bakarlaria.

■ Ondoren, DJ Seymar.

Urriak 12, larunbata:

Gaupasa Eguna

■ 12:00 Serigrafia tailerra, "Zatzaizkit"-eko Beñat Iraolaren eskutik.

■ 13:00 II. Tiratxinak jaurtiketa txapelketa.

■ 15:30 Trainerila estropadak erriean: Gizonezkoen X. eta Emakumezkoen IV. ikurrinak. Euskotren Ligako neskak eta Euskolabel Ligako mutilak

izango dira hurrenez hurren, etxeko trainerila anfitrioi delarik!

■ 18:00 Eriz Magoaren "Auskalo" saioa.

■ 19:00 Elektrotzaranga plazan zehar: Joselontxos.

■ 23:30 Kontzertuak frontoian: Lihier eta Enkore.

■ Ondoren, erromeria: Larrian Gozo.

■ 04:00 DJak Eliza Zaharrean eta karpan.

■ 07:30 Errefus-bilketa!

Oharrak:

■ Aginagako Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen ezbeharrez.

■ Usurbilgo Udalak babesturiko festak direnez, ardura zibilaren aseguru poliza ere Udalak bereganatzen du.

■ Eskerrik asko Orioko Arraun Elkarteari, estropaden antolaketan laguntzeagatik.

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Harria Hitz ibilbide gidatua, orain ere sarean

Herriko kultur altxorrek erakusleihen berria dute sarean; Harria Hitz ekimenak Internetera eta handik mundu zabalera jauzi egin du. Urrats berria eman dute honenbestez, egitasmo hau kudeatzen duten Usurbilgo Udalak eta Ereiten Kultur Zerbitzuak-ek. “Usurbildik kanpoko euskal herritarrei erakusteko helburuz sortu genuen Harria Hitz eta gaur horren bueltan beste urrats bat eman nahi dugu. Webgune bat sortu dugu”, berri eman zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta, Ereiten-eko kide Sara Etxebesterekin batera joan den astean Potxoenean egin zuten agerraldian.

Webgune berria aurkezteko baliatu zuten hitzordua. Harriahitz.eus atarian klikatzen baduzue, Usurbilgo ondare artistikoaren txokoan barneratuko zarete. Herrian 1960ko hamarkadako kultur eztanda gertatu ostetik elkarbizi garen artelanen gaineko informazioa jasoko duzue. Usurbilen bertan tipi-tapa ezagutu ditzakezuen Dema plaza, Udarregi bertsolariaren omeneko eskultura, Mikel Laboaren omeneko plaza eta eskultura, Jose Luis Zumetaren eta Alejandro Tapiaren muralak, sagardoaren eskultura... horien guztien gaineko informazioa jaso ahalko duzue. Usurbilgo ondare artistikoaren erakusleihen berria dugu, duela hiruzpalau urtetik hona tarteka egiten den Harria Hitz bisita gidatuaren isla argia duena. Harria Hitz gaineko xehetasunak biltzen ditu “Sarrera” eta “ibilbidea” ataletan. “Ostalaritza” izenekoan gure artera bisitan datozen euskal herritarrek herrian bertan jan eta edateko eskaintza zabala. “Zure Usurbil” txokoak bisitan datozenekin hartuemanak sustatzeko balioko du. “Bisitan egiten dituzten argazkiak



Ereiten Kultur Zerbitzuak-ek eta Udalak harriahitz.eus ataria aurkeztu zuten aurreko astean Potxoenean.

SARA ETXEBESTE

“Bisitan egindako argazkiak igo, iritziak eman eta euren ekarpenak proposa ditzakete”

igo, iritziak eman eta beraien ekarpenak proposa ditzakete”, Etxebesteren esanetan. Azkenik, agendan datozen Harria Hitz ekimenaren edizioak iragarriko dituzte. Gaurkoz, abendura arteko hitzorduen gaineko informazioa bildu dute, baita izen emateko dauden bideen berri ere.

Turismo pausatua

Sendotzen doa Udaletik nabar-

mentzen dutenez, Harria Hitz ekimena. Bisita gidatuak antolatzen hasi ziren duela urte gutxi. Etengabe berritzen doa ekimena. Kultur eragile gehiagorekin elkarlana sustatzen aritu dira, eskaintza oparoagoa osatuz; Txokoaldeko Txalaparta Txokoarekin edota Zumeta Arte Estudioarekin. Formatu berriak txertatzen joan dira; esaterako, sagardo dastatzeak, edota herriko marrazkilariekin joan den larunbatean eginiko saioa. Ibilbide irisgarria izateko aplikazio bat ere sortua dute telefonoetarako. “Euskal herritarrei eskaintzen diegun kultur produktu garrantzitsu bat da”, zioen Usurbilgo alkateak ira-

gan asteko webgune berriaren aurkezpenean.

Udaletik sustatu nahi duten Usurbilgo turismo eredua bera agerian uzten duena; “pau-satua, gertukoa, euskalduna eta herritarrek errespetatzen dituen”. Bisitari kopuru mugatu batekin beti. Euskal kulturaren, euskararen eta artearen oinarritua. Bisitarien soilik ez, Usurbilgo alkateak etxekoak ere herrian dugin ondarea sakonago ezagutzera animatu nahi ditu. “Harria Hitz zer den, gure kaleek gordetzen dituzten altxor horiek ezagutu ditzatela”.

Hurrengo Harria Hitz

■ Urriak 26: 12:30 Harria Hitz bisita gidatua herri erdigunean barrena. 16:00 Argazpituak tailerra Koldo Almandozekin.

■ Azaroak 23: 10:00 Harria Hitz bisita gidatua herri erdigunean barrena, Irati Otamendi ikerlari eta arkitektoarekin.

■ Abenduak 14: 10:00 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean. Txokoaldeko Txalaparta Txokora eta Zumeta Arte Estudia bisitak.

Erreserbak, informazioa:

harriahitz.eus

688 818 017

info@kultour.pro

“Dzirt-dzart” sortzen

Berezia izan zen joan den larunbateko Harria Hitz. Potxoenean amaitu zuten, herriko hiru sortzaile ezagun bildu zituen “dzirt-dzart” ekimenarekin. Idoia Torregarai jardun zen aurkezle lanetan, edo bertso saio baten pareko gai jartzaile lanetan, eta bere esanetara, banaka, erlojuz kontra edota buruz buru aritu ziren marrazten Antton Olariaga eta Joseba Larratxe. Ikusgarria, Torregaraireren esanetara bat batean zer sortzeko gai ziren.



Joseba Larratxe eta Antton Olariaga buruz buru aritu ziren marrazten.

Abestia aurkeztu eta sinadura bilketa kanpaina abiatu du “Xua Gurasoekin Etxera” plataformak

Usurbilen ez da izan irail-leko azken ostiraleko euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzetik. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak Oriora joateko deia egina zuen irailaren 27an. Ekainean jendaurrean aurkeztu zuten “Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimenak deitutako elkarretaratze berezia egin zuten herriko plazan.

Gogoan izan, aipatu bilguneak Valentziako Picassenteko espetxean diren Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta haien haur Xua etxeratzearen alde lan egingo du. Xuak hiru urte beteko ditu urtarrian eta espetxetik irten beharko du. Gurasoengandik bereiziko dute. Olatzek eta Patxik espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte eta jada baldintzapean aske behar zuten.



Usurbil, Orio eta Zarauzko lagunek sortutako abestia eta koreografia aurkeztu zuten aurreko ostiralean.

XUA GURASOEGIN ETXERA

“Aste hasierarako ia 1.000 sinadura bilduak zituzten change.org atarian”

Sinadura bilketa

Ekainean aurkeztu zuten jendaurrean plataforma, arropa salmentari ekin zioten gero. Irailaren 27ko ekitaldian, Usur-

bil, Orio eta Zarauzko lagunek sortutako abestia eta koreografia aurkeztu zuten. “Kantua uda honetan prestatua eta grabatua izan da Orioko Ama-soain baserrian. Horretarako beharrezkoa izan da, Orio, Usurbil eta Zarauzko musikari eta artisten laguntza. Koreografia berri, Orioko dantzariak prestatu dute. Borondatezko

lan itzelaren emaitza izan da dena”, adierazi zuten aipatu ekitaldian. Manifestua ere aurkeztu zuten.

Mahaiak kaleetan

Aste hasierarako ia 1.000 sinadura bilduak zituzten. Manifestua sinatzeko change.org atarian sartu eta bilatzailean “Xua Gurasoekin Etxera” idatzi. Bestela, herri plataformak kalean jarriko duen mahaiaren ere sinatu ahalko da.

“Xua Gurasoekin Etxera” abestia

Pardela eta kartzela
Sehaska eta arraska
Pijama txiki urdinak
Jantzita ditu sorginak
Zergatik daramatzate
Pantxik esku burdinak?
Patioan kulunpioan
Parkean eta katean
Soka saltoan ari da
Gurasoak begira
Zergatik etorri behar du
Bakarrik Euskal Herrira?

Han utzita gurasoak
Etxera zatoz xua
Zabalik zabalik besoak
Hartzazu gure musua



Orion egin zuten aurkezpena.

“Xua gurasoekin etxera” manifestua

Xua Lasagabaster Uranga Picassenteko espetxean (Valentzia) jaio zen, 2017ko urtarrilaren 19an. Bere amarekin bizi da eta noizbehinka elkartzeko aukera izaten du espetxe berrean preso dagoen bere aita Patxirekin. Hilabete gutxi barru, hiru urte beteko ditu. Espainiako legeak hala aginduta, bere gurasoengandik bereiziko dute eta ezin izango ditu ikusi bisitetan ez bada.

Eten oso mingarria izango da, jakina. Are gehiago, urruntasunak (Usurbil/Oriotik 600 km-ra dago Picassent) elkar ikusteko aukerak murriztuko dizkielako. Dena den, ez lukete zertan banaketaren sufrimendu gehigarria jasan behar. Izan ere, Olatzek eta Patxik 10 urte bete dituzte preso ekainean. Beren 12 urteko zigorraren 3/4ak baino gehiago. Horrenbestez, Espainiako

legeria arrunta aplikatuz, biek ala biek baldintzapeko askatasuna lortzeko eskubidea dute. Horixe da, hain justu, agintariei eskatzen dieguna. Salbuespenezko legeak alboratu eta lege eta gizalegez joka dezatela. Ekidin daitekeen sufrimendurik ez diezaite- la eragin hirurak bananduta, eta Xuarekin batera Patxi eta Olatz gurasoak ere etxera ekar ditzatela.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Ucingo sutea zerk eragin zuen argitzeke dago

Sutea piztu zen irailaren 23an Ucin lantegian. Suteak ez zuen inor zauritu baina kalte materialak eragin zituen. Eta kalte materialekin batera, kirats handiko ke lainoa, Donostiatik ere ikusi eta herri osoan barreiatu zena. Sutea piztu eta berehala hurbildu ziren suhiltzaileak, udaltzainak, Ertzaintza eta anbulantzia bat.

Baita udal ordezkariak ere. Sare sozialen bidez berri eman zuten, “alkatea eta udal zinegotziak Ucin enpresara hurbildu dira, kea ikusi orduko”. Gertatutakoaren berri jaso eta eman zuen Udalak. “Enpresako arduradunek adierazi digutenez, laminazio beroko trenak su hartu du, eta ez fundizioa egiten duten labeek. Zorionez ez da langilerik zauritu”, berri eman zuen Udalak Twitter bidez.

Orain arte bezala, aurrerantzean ere iragarri zuten, “udal gobernuak harremanetan jarraituko du enpresarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin gertatutakoa argitu eta beharrezko diren neurriak hartzeko”.

Ucin eta Udalaren bilera

Sutea gertatu eta egun gutxira, irailaren 26an udalbatzak egin zuen osoko bilkuran gai honi buruz galdetu zion EAJ taldeak udal gobernu taldeari. Sutea gertatu berrikan adie-



Sutea noiz eta non jazo zen argi dagoen arren, lantegiak Udalari helarazitako txostenak dioenez, zerk eragin zuen argitzeke omen dago.

UDAL ITURRIAK

“Udal gobernuak harremanetan jarraituko du enpresarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin gertatutakoa argitu eta beharrezko diren neurriak hartzeko”

razitakoa berretsi zuen alkateak. “Laminazio trenean izan zuten sutea”, adierazi zuen Agurtzane Solaberrietak. Gaineratu zuten, “sutea ez zen handiagoa izan, langileek nahiko azkar jokatu zutelako”.

Nabarmentzeko moduko kalte materialak izan ditu gertaera honen eraginez Ucin. Sutea noiz eta non jazo zen argi dagoen arren, lantegiak Udalari helarazitako txostenak dioenez, zerk eragin zuen argitzeke omen da.

“Usain jasanezina”

Udal gobernu taldeak aipatu plenoan iragarri zuten, asteazken honetan Udala Ucin lantegiko ordezkariarekin biltzekoa da. Batetik sutearen ondorioez hitz egingo dute saio horretan. “Langileei nola eragingo dien”, alkateak osoko bilkuran zioen. Horrekin batera, Ucin

lehenik “hainbat gai zintzilik” badira udal gobernu taldearen esanetan eta horiei ere heldu nahi die bilera horretan. Enpresaren jardunak duen eraginari heltzeko “une ona” izan daitekeela gaineratzen zuen. Erreferentzia argia egin zion alkateak, sutearen egunean bizitakoari. Hainbat herritarren kezka jaso dituzte, ke isuri eta “usain jasanezina” dela eta. Bai joan den asteko sutearen ostean, baita lehendik ere.

Gai honi lotuta, lantegian berrikuntzak edota hobekuntzak sustatzeko une ona izan zitekeela irizten zion udal gobernu taldeak azken plenoan.

Airearen kalitateari buruzko ikerketa bat egin da herrian eta emaitzaren berri emango dute hilaren 16an

“Eusko Jaurlaritzak herrian dituen makinek neurtutakoaren arabera, Usurbilgo aire kalitatea ona da: ohiko parametroen barruan sartzen dira emaitzak”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

Aurkezpena, Potxoenean

Dena den, kezka hori bere egin, eta Usurbilgo airea neurtzeko eskatu dio udalak UPC Kataluniako Unibertsitate Politeknikoari. “Aurten go maiatz-ekainean egin di-

tuzte neurketak”, eta horren emaitzak aurkeztuko dituzte urriaren 16an Potxoenean, 19:00etan.

24 orduko neurketak

24 orduko neurketak egin

zizuten jardura jakin batzuen inguruan, eta emaitza horien inguruko xehetasunak azalduko dituzte jendaurrean. Agerraldi horretan UPCko nahiz udaleko ordezkariak parte hartuko dute.

Buruntzaldeko bideetan tipi-tapa

Tipi-tapa eskualdean ditugun bideetan barneratzeko gonbita luzatu digute beste behin ere eskualdeko udalek. Hilabete honetan ospatuko da Buruntzaldeko Ibilbideen 12. Eguna (eguna zehazteke dago oraindik). Ohi bezala, goiz partean eskueran izan eta Usurbil, Lasarte, Urnieta eta Andoain lotzen dituzten bideak oinez osatzeko aukera izango dugu. Urtero moduan kontrol guneak izango dira eta nor bere udalerrira itzultzeko doako autobus zerbitzua. Informazio gehiago: buruntzaldea.eus

Baztango itzuliko

bigarren etapa

Apirilean abiatutako Baztango itzuliari hilabete honetan emango diote segida, urriaren 13rako antolatu eta Artesiaga, Argintzu, Harrikulunka eta Beartzun lotuko dituen 20 kilometroko bigarren etaparekin. "Animatu!", luzatu dute gonbita antolatzaileek. Izen ematea zabaldu dute:



Hilabete honetan ospatuko da Buruntzaldeko Ibilbideen XII. Eguna.

- Eguna: urriak 13 igandea.
- Abiatzeko hitzordua: 7:00-etan Oiardo Kiroldigitik.
- Joan etorria: autobusez.
- Ibilbidea: 20 kilometro. Artesiaga-Argintzu-Harrikulunka-Beartzun.
- Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin urriaren 9a baino lehen, Andatza M.K.K.-ren kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 30080259163005430321 Kutxabank: 2095506907106848 9805
- Oharrak:
 - Plaza kopuru mugatua.
 - Bazkaria norbere kontu, ibilbi-

dean zehar egingo da otordua. -Andatza M.K.K.-ren irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izan eta aseguru txartela indarrean izatea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo andatza@hotmail.com bidez gurekin harremanetan jarri".

- Informazio gehiago: andatza.com
- Antolatzailea: Andatza M.K.K.

Futbola Haranen

Urriak 5, larunbata

- 10:00 Jubenilak: Usurbil F.T.-Danena (lagun artekoa).
- 12:00 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Intxaurdi.
- 16:00 Erregionalak: Usurbil F.T.-Intxurre.

Eskubaloia Oiardon

Urriak 5, larunbata

Eskola Kirola

- 9:30 Infantil neskak: Udarregi A Usurbil-Galdona Pulpo EK.

Usurbil K.E.

- 11:00 Kadete territorial mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Amenabar A ZKE.
- 12:45 Kadete territorial neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Aiala C ZKE.
- 16:30 Jubenil territorial neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Egia Seikar.
- 18:30 Senior mutilak 1. territorialeko taldea, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Ordizia Siglo XX Plater Prestatuak.

Biodantza ikastaroan izen emateko azken egunak

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolaturiko jabetza eskoletako batean izen emateko epea zabalik dago oraindik, urriaren 5era arte. Urriaren 7tik abenduaren 16ra, astelehenetan 15:30-17:00 artean Bake Epaitegi atzeko lokalean (Nagusia, 4) Elen Kortaxarena Gesalagak

eskainiko duen biodantza ikastaroari buruz gabilta.

Izen ematea eta informazio gehiago: 943 377 110
parekidetasuna1@usurbil.eus

Asertibotasuna eta ahalduntzea

Pepa Bojók zuzenduko duen "Asertibotasuna eta ahaldun-

tzea: komunikazio trebetasunak, harreman parekideak eta gatazken konponbidea" ikastaroa berriz urriaren 3an abiatu eta abenduaren 12ra arte luzatuko da, ostegunetan 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Izen ematea itxita dago.



Urriaren 5ean amaituko da biodantza ikastaroan izena emateko epea.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

ARRANDEGIA PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Patxi
Patriketa
latetxea

• bazkariak EGUNERO
• afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 • © 688 690 361

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etzeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebi-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

zitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Kale Nagusian, Udaletxe aurrean, 4 logelako etxea terrazarekin alokatzen dugu. 686 913 564. (Eneko)

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. Tel. 666 108 164

Usurbil erdikaldean, 2 logelako pisu bat alokatzen dut. Tel. 685 720 124.

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua,

lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Yamaha Virago 250 XV motorra salgai eta osagarriak opari. 990 euro. 617 701 173.

Land rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxurata, kolpearekin... 623179537.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska baten bila gabilta orduka lan egiteko, Usurbilen. Tel. 609 403 081

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrek emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar

dugu Lukainkategi erretegiaren. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko ku-deatzaila behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrek emateko prest dagoen jendearen zerranda eguneratzen ari da. Partikularrek emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaile behar dira Aratz erretegiaren, info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Estilo guztietako txirikordak (trenzak) egiten dira. Tel. 658706345, 60256809.

Neska arduratsua naiz eta lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaindu, interna edo externa moduan, edo orduka. Garbiketa lanak egiteko prest. 625 652 614.

Neska arduratsua naiz eta lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaindu, interna edo externa moduan, edo orduka. Garbiketa lanak egiteko prest. 625 65 28 98.

Mutil arduratsua naiz eta lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaindu, interna edo externa moduan, orduka. Garbiketa lanak



Datorren urriaren 2an gure printzesak 5 urte beteko ditu. Ondo ondo ospatu zure lagun eta familiarekin. Muxu handi bat. Maite zaitugu!



Zorionak poxpoliña!!
A ze egun zoragarria pasako duguna zure 10. urtebetetzia ospatzen. Jarraitu horren alai eta ameslaria izaten. Muxu erraldoia familia guztiaren partez.



Zorionak Alain!
Urriaren 9an, beteko dituzu urteak! 8 urte dagoeneko! Muxu handi bat!



Zorionak Amane!
Bi urte bete berri dituzu. Zorionak etxekoan partez!

Heriotzak

Maria Azkonobieta Esnal

79 urterekin hil zen irailaren 25ean Usurbilen



Hilario Jauregi Iruretagoiena

72 urterekin hil zen irailaren 26an Usurbilen



Juan Martin Bengoetxea Esnal

84 urterekin hil zen irailaren 28an Aginagan



edo nekazal lanak egiteko prest. 625 65 16 11.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interno, egunez edo orduka. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Interna, egunez edo orduka. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldez zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa lanak, haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziarekin. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala lanean hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo or-

duka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

BESTELAKOAK

Larunbatean Scooter markako patinete beltza eta urdina desagertu zitzaigun, Benta inguruan. Aurkitu baduzu deitu: 636 656 515.

Andatzpe elkarteko bazkide naiz, plaza saldu nahiko nuke. Interesa duenak deitu: 699 421 238 Iñigo.

AEG markako 8 kiloko lehorgailua salgai. Oso gutxi erabilia. 616273785.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Udan frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak presatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonés arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzailak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitetzke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 03 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 04 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 05 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 07 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 08 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Urriak 03 - Urriak 13

Osteguna 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 11 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

04 ostirala

- **Aginagako jaiak: San Praixku Eguna.** Ikus 15. orrialdea.
- **Hitzaldia: "Petrolioaren gailurra eta bere ondorioak".** 19:00etan Potxoenean.

05 larunbata

- **Aginagako jaiak: Oilasko Biltzaileen Eguna.** Ikus 15. orrialdea.
- **Organo kontzertua** 20:00etan Salbatore Elizan. Willibald Guggenmos organista alemaniarren eskutik.

06 igandea

- **Aginagako jaiak: Gora Herria Eguna.** Ikus 15. orrialdea.

Larunbat honetan, organo kontzertua Salbatore parrokian

Hamar urte zituenerako Willibald Guggenmosek bazuen postu bat organista gisa. Augsburgoko eta Municheko kontserbatorioetan ikasi zuen, eta han egin zituen pianoko, zuzendaritzako eta organoko goi mailako graduak. 2001 eta 2004 urteen artean Municheko Katedraleko organista gisa jardun zuen eta geroztik St. Galleneko Katedralean (Suitza) ari da organista gisa.

Guggenmosek Donostiako Musika Hama-bostaldian parte hartu izan du. Larunbat honetan Salbatore parrokian arituko da, 20:00etan hasiko den kontzertuan.



Willibald Guggenmos organojole alemaniarrek eskainiko du kontzertua.

Urriak 5 larunbata

- 20:00etan, Salbatore Elizan.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Parrokia, Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Energiaren inguruko hitzaldia Potxoenean

Bi saio antolatu dira urrian. Lehenengo hilaren 4an 19:00etan Potxoenean. "Petrolioaren gailurra eta bere ondorioak" hizpide izango ditu Antonio Aretxabala geologoak.

Urriaren 18an, "toki-esperientziak energian: Zubieta eta Ispaster proiektuak. Energia Berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak" saioa iragarri dute.

0-6 urte arteko umeen inguruko solasaldia

Bihurri ludotekak eta Sexu Aholkularitza Guneak solasaldia antolatu dute elkarrekin. Urriaren 8an asteartea, 17:30ean ludotekan bertan. "0-6 adin tarteko umeen gurasoontzat, haurrek beren identitatearen garapenean bidelagun izateko, sortzen zaizkigun zalantzez aritzeko txokoa eskaini nahi da". Izen ematea aldeztu aurretik egitea eskertuko lukete, hona idatziz: bihuririludoteka@gmail.com

Datozenak

Mintzapraktika egitasmoaren aurkezpena

Euskara ahotan hartzeko espazio edo lagun arte bila bazabiltza, Etumeta AEK euskaltegiak, NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak sustaturiko mintzapraktika duzu egitasmo aproposa.

"Euskara praktikatu nahi baduzu eta ez badakizu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen ditugu: mintzalagun taldeak, gurasolagunak, tailerrak, txangoak...". 2010az geroztik Usurbilen Mintzalagun egitasmoa sustatzen dabiltza euskaltegia, Udala eta NOAUA! K.E. Bidelari eta bidelagunak behar izaten ditu ekimen honek; euskara ikasten aritu edo maila hobetzen ari direnen eta euskara baliatzen jakinik, mintzapraktikan aritu nahi dutenena.

Urriaren 11n, Etumeta AEK euskaltegian

Egitasmo hau jendaurrean aurkeztuko dute bilera ireki bidez, datorren urriaren 11n, arratsaldeko 17:30ean Etumeta AEK euskaltegian. Euskaltzale guztiok gonbidatuak gaude hitzordura.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENEA taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil



ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019 (ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

URRIAK >>>>>> 6, 20
AZAROAK >>>>>> 3, 17
ABENDUAK >>>> 1, 15, 29



Lodosako pikillo piperra



Piperra 3 eratan eska daiteke:

gordinik; 1.70€/kg
 Erreta; 2.30€/kg (erre ondoren 800g.)
 Konjelatzeko poltsetan; 200g
 inguruko poltsa (jatorrian 0.5kg
 piper dira); 2.95€.

*Najerano edo Piko de Mendavia
 nahi badituzu, galde iezaguzu.

Eskariak 2019/10/18 arte jasoko dira.

www.alkartasuna.eus

Alkartasuna Kooperatiban:

Atallu industrialdea 26, Usurbil
 943 361 114 eta 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com



Urbil | Kilometroak 2019

*“Ni, hi, hura,
ikastola mundura!”*

#UrbilKonpromisoa



KMK'19

Zarautz
2019ko urriak 6